# XV. idazlan koadernoa

LH



**GERNIKA-LUMO**

XV. IDAZLAN KOADERNOA
Ipuin zoragarriak

**Lehen Hezkuntza**
**GERNIKA-LUMO**
2016

**edizioa**

Argitaratzailea:
• **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:
• **Allende Salazar Ikastetxea**
• **Barrutia Eskualde Ikastetxea**
• **Mertzede Ikastetxea**
• **San Fidel Ikastola**
• **Seber Altube Ikastola**

Azala: ***LOGELA***
Egilea: **Jon Asla Urrutia**
(LH 5. mailako ikaslea)

Babesleak:
• **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
• **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**
(Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
• **11barri**

Inprimaketa:
• **Lizaso Grafikak Zornotza**

## hitzaurrea

Hamabost urte bete dira eta **Idazlan Koadernoen ekimena** nerabezaroan daukagu. Nerabezaroa, familia giroan adin aproposa ohiturak errotzeko eta, zer esanik ez, hizkuntzari dagokionean ere bai. Denboraren poderioz, 2002an lehenengo idatziak kaleratu zituzten ikasleetako batzuk guraso bihurtu dira eta, orain, hauen seme-alabak dira kateari jarraipena ematen diotenak.

Euskararen transmisiorako eskola mundua dugu erreferente nagusitzat eta bikain betetzen du paper hori. Baina ahaztu egiten zaigu euskararen katea indartzeko eta bere erabilera etxera eta kalera zabaltzeko familia dela inportanteena, bertan errotzen direlako hizkuntza ohiturak. Hor dago familiakideen (gurasoen, aittitte-amumen,…) papera, eragina eta konpromisoa.

**Idazlan Koaderno** hauek lagungarri izan gura dute horretarako. Batetik, gaztetxoengan harrotasun sentimendu positiboa sortu eta bizitza osorako euskararen "esperientzia" eta txertoa aldean eraman dezaten. Bestetik, gurasoei harrotasun hori kontagiatu eta euskarari familia giroan balio erantsia eman izan dakion.

Ikasle hori! Hartu liburu hau eta erakutsiezu zeure gurasoei zer egiteko kapaz zaren.

Guraso hori! Eseri seme-alabaren ondoan eta, bere aurpegi liluratuaz gozatuz, eraman euskara ahora.

Marisa Aldamizetxebarria
*Euskara zinegotzia*

# IDAZLAN KOADERNOAK 2016




## LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA

2016ko MAiATZAren 2-3an
GERNIKA-LUMOn •
LIZEO ANTZOKIAN, 11:00etan


| IZENA | IKASTETXEA | maila | IPUINA | orr. |
|---|---|---|---|---|
| Damian Nicolas Bravo Romero | MERTZEDE | L.H. 1. | *Lagun minak* | 5 |
| Aimar Zearra Barrio | ALLENDE S. | L.H. 2. | *Pinua eta Haritza* | 7 |
| June Zabaleta Outeiral | SEBER A. | L.H. 2. | *Madalen eta Ferminen abenturak* | 9 |
| Naroa Celaya Aranguena | SAN FIDEL | L.H. 2. | *Zaldia eta bere laguna* | 10 |
| Maialen Unamuno Musatadi | BARRUTIA | L.H. 2. | *Ardi txiki bat ilargian* | 11 |
| Amets Villalibre eta Gari Elorriaga | ALLENDE S. | L.H. 2. | *Espazioko zulo beltza* | 13 |
| Leire Zubillaga Salces | MERTZEDE | L.H. 2. | *Zirku magikoa* | 14 |
| Danel Intxausti Artetxe | SEBER A. | L.H. 2. | *Urtxintxa ausarta* | 16 |
| Enara Zuzaeta Aldape | BARRUTIA | L.H. 2 | *Pijama festa* | 17 |
| Xabier Legarreta Laka | SAN FIDEL | L.H. 2. | *Erregeak* | 20 |
| Haizea Zorrozua Txertudi | ALLENDE S. | L.H. 3. | *Hiltzen garenean* | 21 |
| Alexia Lombraña Ballesteros | MERTZEDE | L.H. 3. | *Maitaneren txakurra* | 23 |
| Irati Zuntzunegi Dominguez | SEBER A. | L.H. 3. | *New York* | 26 |
| Noa Ispizua Vergel | BARRUTIA | L.H. 3. | *Noaren opariak* | 28 |
| Izar Akesolo Izagirre | ALLENDE S. | L.H. 4. | *Liburu tristea* | 30 |
| Oier Artetxe del Olmo | SAN FIDEL | L.H. 4. | *Altxor galdua* | 32 |
| Gorka Kortabitarte Gonzalez | MERTZEDE | L.H. 4. | *Hiru lagunek* | 34 |
| Laiene Dañobeitia Atxirika | SEBER A. | L.H. 4. | *Olentzeroren ezustekoa* | 36 |
| Unai Urrutia Oar-arteta | BARRUTIA | L.H. 4. | *Ilargira bidaia* | 41 |
| Maite Fernandez Larruzea | SAN FIDEL | L.H. 4. | *Izurde magikoa* | 44 |
| Anne Lamikiz Artetxe | ALLENDE S. | L.H. 5. | *Elurrezko panpin magikoa* | 46 |
| Jon Asla Urrutia | MERTZEDE | L.H. 5. | *Ametsa bete nahian* | 48 |
| Beñat Mallona Anakabe | SEBER A. | L.H. 5. | *Katurno* | 51 |
| Laiene Basterretxea Gerrikabeitia | BARRUTIA | L.H. 5. | *Lau lagunak* | 54 |
| Uxue Ibarguengoitia Magunagoitia | ALLENDE S. | L.H. 6. | *Aitona txirrindularia* | 57 |
| Jon Eiguren Egiarte | SAN FIDEL | L.H. 6. | *Etxe abandonatua* | 59 |
| Ekain Barandika Gomez | MERTZEDE | L.H. 6. | *Gelako mahaia* | 62 |
| Jon Foruria Lasa | SEBER A. | L.H. 6. | *Zertaz kexa gaitezke?* | 65 |
| June Zameza Azurmendi | BARRUTIA | L.H. 6. | *Joneren baratza* | 68 |
| Iker Torriko Arriandiaga | SAN FIDEL | L.H. 6. | *Patxi, Afrikatik etorritako ikasle zintzoa* | 71 |



Damian Nicolas Bravo Romero

«Besteei laguntzeko, nagusitan ertzaina izatea gustatuko litzaidake»

# Lagun minak

LAGUN MINAK

Edurnek eta Asierrek ikastolako lehenengo mailan ikasten dute. Lagun minak dira eta atsedenaldi guztietan elkarrekin jolasten dira.

Astelehen batean Edurne ez zen ikastolan agertu. Asteburuan, bizikletatik erori zen eta izterreko hezur bat apurtu zuela, andereñok gelako umeei esan zien.

Egunero, Asierrek marrazki bat egiten zuen. Hurrengo asteburuan Edurneri bisita bat egitera ospitalera joan zen.

Ze pozik jarri zen Edurne bere lagunaren marrazkiak ikusi zituenean!

—Zu zara nire lagun onena!
—esan zion Edurnek Asierri.
Eta haiek ondo bizi baziren
gu ere ondo bizi gaitezen.



Damian Bravo
1. maila



Aimar Zearra Barrio
«Nik futbolari ospetsua izatea nahiko nuke»

# Pinua eta Haritza

Pinua eta haritza

Bazen behin pinu bat eta haritz bat.
Pinuak bi begi zeuzkan eta haritzak bi esku
zeuzkan eta basoan pozik bizi ziren.
Normalean pinua paisaiak ikusten
egoten zen egun guztietan.
Haritza eta pinua ez ziren lagunak, eta
egun batean pinuak begi bat galdu zuen.
Horregatik oso triste sentitzen zen begi
bat bakarrik zeukalako.

Egun batean, haritzak begi bat aurkitu zuen eta pinuarena izan zen. Orduan aurkitutako begia pinuari eman zion. Pinua poz-pozik jarri zen eta handik aurrera lagun handiak izan ziren.







June Zabaleta Onteiral
«Saskibaloia eta lagunekin jolastea gustatzen zait»

# Madalen eta Ferminen abenturak

Maddalen eta Fermiñen Abentura

Behin batean Maddalen eta Fermin izeneko neska mutiko bizi ziren herri txiki batean.
-Gaur bidai bat egitera goaz, abentura ikaragarria egingo dugu Fermin! esan zuen Maddlenek. autobusa artzera!
- Bai, goazen autobusa artzera - erantzun zion.
Autobusa hartu eta joan ziren abentura bizitzera. Apurtxobat pasa eta gero, autob-usekoari esan zioten gelditzeko mesedez Maddalenek eta Fermiñek autobusetik irten zutenean baso baten agertu ziren. Fermiñek esan zuen -Gure abentura hasiko da! Basora hurbildu ziren eta gurdi bat topatu zuten apurtuta.



Aurrerago, otso on bat aurkitu zuten gaixorik. Gurdia konpondu eta otsoa etera eraman zuten sendatzeko.
Otso hura heuren laguna egin zen eta jolasten ibiltzen ziren egunero berarekin.



Naroa Celaya Aranguena
«Musika gustatzen zait»

# Zaldia eta bere laguna

## Zaldia eta bere laguna

Behin batean Santxo zaldia mendira joan zen elurra ikustera. Santxo poz-pozik zihoala txakur batekin topo egin zuen. Santxo beldurtu egin zen eta txakurrak esan zion:

-Ez beldurtu, zure laguna izan nahi dut.

-Nire laguna?- esan zuen zaldiak.

-Bai zure laguna. Nik Sua dut izena eta zuk?

-Nik Santxo dut izena eta elurra ikustera noa.

-Elurra ikustera? Joan ahal naiz zurekin?

-Edarto! Biok batera joango gara.

Horrela Santxo eta Sua mendi puntara iritsi ziren eta biek elur panpina egin zuten.





Maialen Unamuno Musatadi
«Niri patinetean ibiltzea gustatzen zait»

# Ardi txiki bat ilargian

ARDI TXIKI BAT ILARGIAN

Bazen behin ardi txiki bat mendi bateko landan bizi zena. Arditxoa pozik bizi zen lastozko etxe batean bere aita, ama eta neba arrebekin. Egunak laguntxoekin larrean jolasten pasatzen zituen. Egun batean, amets bat izan zuen, ilargira joango zela



eta bertan gauza harrigarriak ikusiko zituela. Ohetik altxatu zenean, bere amari gauez izandako ametsa kontatu zion. Amak esan zion ilargira heltzea oso zaila zela eta inoiz arditxo batek ilargira heltzea ez duela lortu.

Etxetik irten zenean larrean bere lagunekin
batu zen eta gauez izandako ametsa kontatu zien.
Orduan, arditxoak ideia bat zeukala esan zien, eta
bere ametsa gauzatzeko denon laguntza beharko zuela.
Gaua heldu zen, zeruan ilargi betea zegoen eta
ardi guztiak zelaian batu ziren ilargiari begira.

Bata bestearen gainean jartzen hasi ziren eta ardi txikiak
gau hartan ilargira heltzea lortu zuen. Ilargiaren
lagun handia egin zen.
Ondoren ardiak etxean bere familia eta lagunak
batu zituen ilargiak belarrira kontatu zizkion istorioak
denei kontatzeko.
Egia ala gezurra, begi bien artean sudurra!!!



L.H. 2. maila

Amets Villalibre
eta Gari Elorriaga

«Guri lagunekin eta familiarekin jolastea gustatzen zaigu»

# Espazioko zulo beltza

ESPAZIOKO-ZULO-BELTZA
Behin batean herri txiki baten ura
eta argia asko gastatzen ziren.
Sakarra ere botaten zuten mendira.
Jendea beti zebilen jaietan eta ez ziren
konturatzen zuhaitzak asko sufritzen zutela.
Egun batean zulo beltz bat ireki zen zeruan
eta herrian agertu ziren tornadoak uholdeak
eta beste denborako elementu txarrak.
Hiru lagunak koete batean joan ziren. Zuloa
zarratzeko sare handi bat hartu zuten.
Mutil bat goian jarri zen bestea ezkerran eta
hirugarrena eskuman. Zuloa topatu zuten
eta gauza txar guztiak amaitu ziren. Herrira
etorri zirenean herritarrek festa bat egin zieten
eta urrezko medaia batzuk eman zizkien alkateak.
Jendea konturatu zen ezin zela kutzatu.

Amets Villalibre 2C
Gari Elorriaga





Leire Zubillaga Salces
"Ikastetxean gauza berriak ikastea dut gogoko»

# Zirku magikoa

## Zirku Magikoa

Bazen behin Martin izeneko mutiko geldiezin eta koskor bat. Animaliekin jolastea gustuko zuen. Zirkua herrira etortzeko irrikan egoten zen. Kartelak ikusterakoan, amari galdetu zion:

-Al gara joan Zirkura animaliak ikustera?

-Bai laztana, bai. Igandean joango gara. -erantzun zion amak.

-Eta zergatik gaur ez? -galdetu zion Martinek.

-Lan egin behar dudalako. -esan zion amak.

Eguna heldu zen eta ilara luze-luze bat aurkitu zuten sarrerak erosteko. Baina azkenean euren txanda iritsi zen. Txartelak eta Kruspetak erosi eta gero, euren jesarlekuetara abiatu ziren. Ekitaldia hasi bezain laster, Martintxo aho zabalik geratu zen.

Lehenik, pailazoak irten ziren, gero trapezistak ondoren magoak eta azkenik animaliak. Itzel pasatu zuten !!!

Amaitzeko, umeek lehoikume batekin argazkiak ateratzeko aukera izan zuten, baina zirkuko arduraduna konturatu zen Kroi kumeak ihes egin zuela.
-Non ote dago barrabas hori ??- galdetu zion bere buruari.
Orduan herriko ume guztiak bila eta bila joan ziren ziztu bizian. Martinen txakurraren usaimenari esker, parkeko iturrian ura edaten topatu zuten. Zirkura eraman zuten eta Kroiren ama izugarri poztu egin zen. Egun zoragarri eta ahaztezina Martinentzat !!!

Hala bazan edo ez bazan, joan zirkura eta primeran pasa.




AMAIERA

Leire Zubillaga 7 urte



Danel Intxausti Artetxe
«Lagunekin jolastea eta pilotara»

# Urtxintxa ausarta

URTXINTXA AUSARTA

Behin batean Urtxintxa izeneko katagorria Mendatako basoan bizi zen. Txikitatik ez zeukan ezertxoko inolako beldurrik. Su-bolatxoa zirudien, ilea, gorri-gorria zuelako. Ez zuten pinaburuik, ez jatekorik aurkitzen, euririk ez zuelako egiten. Basoko katagorri-familiak gose handia pasatzen ari ziren eta Urtxintxak basoan zegoen baserritik, tarta zatia lapurtu zuen bere familiari eramateko.

Bien bitartean, baserriko sukaldean ama errietan ari zitzaion alabari. Amak pentsatzen zuen Naiarak gozokietan zebilela, eta zigortuta bere logelara joan zen.



Urtxintxak, entzun egin zuen baserrira hurbiltzen ari zenean eta neskaren logelako leihora igo zen.

–Kaixo! Zergatik ari zara negarrez?

–Amak zigortu nauelako. Bere tarta jan dudala pentsatzen du.

Urtxintxak, egoera konpontzeko zerbait egin behar zuela erabaki zuen. Sukaldera jaitsi, tarta zati bat hartu eta leihotik kanpora egin zuen ihes. Naiararen gurasoek, hori ikusi zutenean, alabarekin ez zutela ondo jokatu ohartu ziren eta logelara joan ziren barkamena eskatzen.

Danel



L.H. 2. maila

Enara Zuzaeta Aldape

"Nire lagunekin eta familiarekin jolastea gustatzen zait»

# Pijama festa

PIJAMA FESTA

Duela bizpahiru hilabete, lagun artean, pijama festa bat antolatzea pentsatu genuen. Lagun asko etorri nahi zuten baina orduan konturatu ginen ez genuela toki nahikorik gure etxeetan. Hogeitazortzi ginen eta inork ez zuen arduratu nahi eskanbila horretaz. Lagunek pentsatu zuten inguruko aterpetxe batean egin genezakeela gure festa. Pijama festan ez zegoen jolasik eta pentsatu genuen altxorraren bila jolastea. Iluntzean batzuek telebista ikusi zuten, beste batzuek liburuak irakurtzen eta beste batzuk kontuak

esaten zeuden. Afaria jaten geundela batek esan zuen:
- Begira, begira! Elurra egiten ari da. Bihar elurrarekin jolastuko dugu! Denok lotara joan giren eta lo egin genuen. Goizean konturatu giren bat falta zela eta denok bere bila joan giren arduratuta. Ondoren harrapaketara jolasten ari girela hara non aurkitu genuen sofan etzanda lo zegoen. Gero elurrarekin jolastu genuen denbora pila bat denok eta oso ongi pasatu genuen. Argazki pila atera genituen.

Bazkalostean gehienak etxera joan ziren.

Nik oheratzean pentsatu nuen:

-Zelako asteburu zoragarri eta ahazte-

zina igaro dugu.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila

Kalabazan eta irten dadila Barrutiako plazan.





Xabier Legarreta Laka
«Irakurtzea gustuko dot»

# Erregeak



ERREGEAK

Bazen lehin mutiko bat ez zituena gabonetako festak ospatu nahi.
Oso triste jartzen zen bozarekin ez zeuden senideak faltan botatzen zituelako.
Goizean esnatu eta Erregeok utzitako opari bat aurkitu zuen leiho ondoan.
Hasieran zabaltzeko ilusio handirik ez bazuen ere jakinmina zeukan eta zabaldu zuenean ispilu bat aurkitu zuen ohartxo batekin. Hau zihoen;
Mugitu ispilua zure inguruan eta aurkituko dituzu hainbat arrazoi irribarre egiteko.
Horrela egin zuen eta han islatu zen ama, arreba...
Orduan konturatu zen bazeukala zergatik pozik egon.
Hala bazan hala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Foruko plazan.







Haizea Zorrozua Txertudi
«Nire lagunekin egotea eta igeri egitea gustatzen zait»

# Hiltzen garenean

HILTZEN-GARENEAN

Zuek zer uste duzue gertatzen dela hiltzen garenean?



Bakoitzak bere iritzia dauka.

Batzuk diote hiltzen garenean hodei edo izar bihurtzen garela, zeruan egonda beti ahal dogulako dena ikusi.



Besteen ustez, txarto portatzen direnak infernura eta ondo portatzen direnak zerura omen doaz.

Esaten dute baita ere, beste herrialde batera joaten garela eta familia desberdina topatzen dugula bertan. Askok ere uste dute hiltzen garenean desagertu egiten garela haize moduan.

Beste batzuk ispiritu bihurtzen garela.

Inork ez daki zer gertatzen den 

hiltzen garenean baina niri gustatuko litzaidake
beste herrialde batera joatea berriz bizitzera. horrela
ez nintzateke inoiz hilko.

